



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

UDAL PLENOA
Bilkura arrunta

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2017/10/03	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 – 19:40	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK: Igor Urizar Murgoitio (Baleike)

BERTARATZE Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

ETA IRTEERAK:

M. UBARRETXENA (Lehendakaria): Arratsaldeon guztioi eta hasiera emengo diogu gaurko plenoari. 10. Puntuan bagenuetan puntu bat Kataluniako prozesuaren ondorioen inguruko adierazpena eta bueno ba adierazpen hori puntuak kenduko dugu eta orain irakurriko dugu.

EAJ, EH-BILDU, BALEIKE eta IRABAZI talde politikoen artean adostutako adierazpena da.

Prozesu demokratiko bati ezin zaio inolaz ere erantzun biolentziarekin arazo politiko batek erantzun politiko bat behar du eta Kataluniako herriak eskubidea dauka bere etorkizuna erabakitzeko demokraziaren izenean udal honek arbuiatu egiten ditu igandeko gertakizunak estatuak erabilitako gehiegikeria eta biolentzia ekimen baketsu bat isilarazteko ezin dugu onartu Arrasateko udalaren elkartasuna eta babesa Kataluniako herriari adierazi nahi diogu eta honekin plenoari hasiera ematen diogu.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2017ko uztailaren 11 eta 27ko bilkuretako akta, aho batez, onartzen dira.

2.-GARAGARTZAKO AUZO ALKATEAREN IZENDAPENA BERRESTEA. (2015SKOR0001)

Arrasateko Udaleko Araudi Organikoaren 26.4 artikulua baitan, Udal Plenoari, Alkateak, 2017ko abuztuaren 31n hartutako ebazpenaren berri ematen zaio:

ALKATETZAREN ERABAKIA N17/01121

Alkateak 2016ko otsailaren 23ko ebazpenaren bitartez erabaki zuen berrestea bertan zehazten ziren nekazal auzoetako Alkateen izendapenak. Horien artean Garagartza nekazal auzoko Alkatea, Jose Maria Blanco Conde.

Dena den, Garagartza nekazal auzotik adierazi diote udalari, abuztuaren 9an aurkeztutako idatziaren bidez, auzoko batzorde berria izendatu dutela eta horrekin batera Alkate berria ere bai.

Hori horrela Udal Araudi Organikoak 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe ERABAKI DUT:



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

LEHENENGO.- Berrestea jarraian adierazten den nekazal auzoko Alkatearen izendapen hau:

Auzoa

Alkatea (Izen abizenak)

Garagartza nekazal auzoa

Iban Zubizarreta Bergaretxe

BIGARREN.- Dekretu honen berri izendatutako Alkateari, Udalean ordezkari duden talde politikoetako udal bozeramaileei eta Udal Plenoari ematea egingo duen hurrengo bilkuran. Aldi berean, Udaletzeko iragarki taulan argitaratuko da.

**3.- “ARRASATEKO KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETAREN ZERBITZUAK”
ESLEIPEN PROPOSAMENA.(2016CHOZ0030)**

“ARRASATEKO KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETAREN ZERBITZUAK” kontratatzeko prozedura irekiaren kontratazio-mahaia 2017ko apirilaren 12an bildu zen, aurkeztutako eskaintzen proposamen ekonomikoak irekitzeko.

Onartutako eskaintzak hauek izan ziren:

- CESP, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.
- UTE SERBITZU ELKARTEA S.L.-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.
- UTE GRUPO SIFU EUSKADI S.L.- BROCOLI S.L.

Zerbitzu Teknikoek egindako txostenaren arabera, hauxe izan zen aurkeztutako proposamen desberdinek jasotako puntuazioa:

Titularra	Txosten teknikoa
CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.	47,125
UTE SERBITZU ELKARTEA S.L.-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.	31,295
UTE GRUPO SIFU EUSKADI S.L.- BROCOLI S.L.	18,125 (*)

(*) Enpresa lizitatzaileren memoria teknikoak ez ditu lortu 25 puntu, beraz prozeduratik kanpo geratu da eta ez da ireki proposamen ekonomikoa.

Hori egin eta berehalaxe, onartutako proposamenen gutunazalak ireki ziren, egintzako helburukoak, eta emaitza hau izan zen:



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

Titularra	Nahitaezko zerbitzuak		Aukerako zerbitzuak			
			Saneamendua ikuskatzea		Jolastokiak desinfektatzea	
	Prezioa BEZ gabe	Prezioa BEZ barne	Prezioa BEZ gabe	Prezioa BEZ barne	Prezioa BEZ gabe	Prezioa BEZ barne
CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.	1.394.999,10	1.534.499,01	533,84	587,22	1.223,25	1.345,58
UTE SERBITZU ELKARTEA S.L.-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.	1.268.699,75	1.395.569,72	2.500,00	2.750,00	1.500,00	1.650,00
UTE GRUPO SIFU EUSKADI S.L.- BROCOLI S.L.	KANPORATUA (*)					

Ikusirik Zerbitzu Teknikoek egindako txostena, aurkeztutako memoria teknikoak aztertzen dituen, eta, bestetik, automatikoki zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagozkien puntuak batuta, eskaintzen sailkapena hau izan zen:

		1.- Kontratuaren prezioa (nahitaezko zerbitzuak)	2.- Kontratuaren prezioa (saneamendua ikuskatzea)	3.- Kontratuaren prezioa (jolastokiak desinfektatzea)	4.- Txosten teknikoa	GUZTIRA
1	CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.	44,93	0,30	0,30	47,125	92,65
2	UTE SERBITZU ELKARTEA S.L.-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.	49,40	0,06	0,24	31,295	81,00

KONTUAN IZANIK Udal Plenoak, 2017ko maiatzaren 9an, erabaki zuela “CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.” enpresari adjudikatzea “ARRASATEKO KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETAREN ZERBITZUAK”, 1.394.999,10 €/urtean, BEZa sartu gabe, (1.534.499,01 €, BEZ barne) eta lau urteko epean.

KONTUAN IZANIK UTE SERBITZU ELKARTEA S.L. ETA FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.ek errekurtsioa jarri zuela 2017ko maiatzaren 31an esleipen akordioaren aurka, eta Kontratuen Inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoaren Titularrak, 2017ko uztailaren 10ean emandako Erabakiak onartu egin zuen errekurtsioa eta Udalbatzak 2017ko maiatzaren 9an hartutako erabakia deuseztatu zuen, CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. etxearen eskaintza baztertuz, eta Udalari agintzen dio esleipena sailkapenean ondoren geratu zen etxearen alde egitea, hau da, UTE SERBITZU ELKARTEA S.L. ETA FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.en alde.



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

Kontratazio Mahaiak, 2017ko uztailaren 11an, proposatu zuen “ARRASATEKO KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETAREN ZERBITZUAK” egiteko eskaintza ekonomikorik onena “UTE SERBITZU ELKARTEA S.L.-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.” enpresak egindakoa deklaratzeko, eta errekeritza hamar egun baliodunetan behin betiko bermea jartzeko eta beharrezkoa den dokumentazio gehigarria emateko.

Ikusirik 2017ko uztailaren 12an Alkateak aipatu errekerimendua egitea erabaki zuela, eta 2017ko abuztuaren 7an enpresak behin betiko bermea jarri zuela, 253.739,95 €koa, eta eskatutako agiriak aurkeztu zituela.

Azaldutakoaren ondorioz, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak hurrengo proposatzen du:

I.- “SERBITZU ELKARTEA S.L.-FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A., UTE LV ARRASATE (CIF.: U-75183020)” enpresari adjudikatzea “ARRASATEKO KALEEN ETA ANTZEKOEN GARBIKETAREN ZERBITZUAK”, 1.268.699,75 €/urtean, BEZa sartu gabe, (1.395.569,72 €, BEZ barne) eta lau urteko epean.

II.- Aipatu enpresari jakinaraztea, adjudikazioaren jakinarazpen hau jaso eta hamabost egun baliodun igaro ondoren, bost egun izango dituela Udaletxean agertu eta administrazio agirian kontratua sinatzeko.

III.- Kontratuaren exekuzioan parte hartuko duten langileei aplikatuko zaie **Lan Hitzarmen kolektiboa**, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat arlotako sektoreari dagokiona: Bide garbiketa publikoa, ureztaketak, etxez etxeko zabor biltzea, hiri hondakin solidoen zaborteak, hondartzen garbiketa, hondakinen tratamendua eta ezabapena, gaikako biltzea, birziklapen plantak, eta estolderiaren garbiketa eta kontserbazioa.

IV Adjudikazio honen iragarkia kontratistaren profilean argitaratzea.

V.- Kontratuen formalizazioaren berri Kontratistaren Profilean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ematea.

VI.- “CESPA, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A.” enpresak 2017ko apirilaren 28an jarritako behin betiko bermea, 209.249,87 €koa, itzultzea.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Interbentziorik?

J.L MERINO (IRABAZI):

Lo que estamos viviendo aquí es ya una guerra entre mafias ¿no? Son estas dos empresas que están planteando recursos unas a otras hablábamos ya hace ya tiempo cuando se adjudicó este servicio



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

del tema de la remunicipalización este ahora se ve, ahora se ve lo que está pasando estas verdaderas empresas mafiosas recurriendo unas a otras queriéndose llevar la pasta de los ciudadanos de Arrasate, creando incertidumbre en los trabajadores y trabajadores de las empresas que va a ser de ellos, nos subrogan o no nos subrogan creando incertidumbre también en cuanto a la calidad del servicio. Tenemos que ser valientes este ayuntamiento tiene que ser valiente o tiene que cambiar la manera de pensar que lo público tiene que ser lo mejor, tiene que ser para todos y no que estas empresas estén mareándonos y tenemos que poner una solución o sea la remunicipalización que planteábamos hace ya tiempo pensamos que es lo mejor en calidad, en estabilidad y en servicio.

Nosotros estamos en contra de votar ni a unos y a otros

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste Interbentziorik?

O.GARCIA (PSE-EE):

Arratsaldeon guztioi. Bien respecto a lo que has dicho me parece legítimo y loable que tengáis una opinión propia respecto a cómo se tiene que dar los servicios cuando se adjudicó en su momento a la empresa Cespa se hizo el anuncio de que se iba hacer un estudio sobre la viabilidad de la remunicipalización y ese estudio como tu bien sabes está en proceso.

Antes de final de año vamos a tener un estudio el cual nos va a decir si la remunicipalización es un estudio concienzudo encargado a LKS y ese es un estudio en cual nos va a decir si tanto económica, técnica, jurídica como humanamente es mejor la remunicipalización en el ayuntamiento de Arrasate o no con lo cual yo no digo ni que sea mejor una cosa ni que sea mejor otra lo que quiero son tener datos en la mano para poder decidir con cierta coherencia.

Respecto a que se está creando cierta incertidumbre en ciertos aspectos puede compartirlo en parte lo que no comparto de ninguna de las maneras es que los trabajadores tengan incertidumbre. Voy a hacer público que he quedado con el comité de empresa y que voy a tener una reunión con ellos para decirles exactamente cuál es la situación en la que está el contrato, los pasos que se van a dar a partir de ahora y tenerlos informados de primera mano en cualquier caso en el pliego venia recogida la obligación de la subrogación de los trabajadores y en una reunión que hemos tenido con la empresa a la cual se le propone la adjudicación ahora en el departamento de OZMA.

Lo primero que se le ha dicho a esa empresa es los trabajadores todos tienen que ser subrogados y la empresa nos ha dicho que no hay ningún problema al respecto. Los puestos de trabajo están asegurados y esa es nuestra principal preocupación desde el principio que no haya ningún trabajador que se quede en el camino y de eso ya nos encargaremos nosotros. Estate tranquilo Juan Luis y te doy mi palabra de que no vamos a dejar a ninguno tirado por el camino.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste Interbentziorik? Bozketara pasatuko gara.



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	18	EAJ-PNV (8), EH-BILDU (7) eta PSE-EE (3)
Kontrako botoak:	2	BALEIKE (1) eta IRABAZI (1)
Abstentzioak:		

Beraz, onartzen da.

4.- DATU FITXATEGIAK EZABATU, BERRIAK SORTU ETA SEGURTASUN DOKUMENTUA ETA INFORMAZIO SISTEMEN ERABILERA EGOKIAREN ESKULIBURUA ONARTZEA. (2017SSEC0019)

Udal Plenoak, aho batez, Enplegu eta Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Datu Pertsonalak Babesteri buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (DBLO) 20. artikulua xedatzen du Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez baino ezingo direla sortu, aldatu edo ezabatu Administrazio Publikoen titulartasunekoak diren datu pertsonalen fitxategiak. Xedapen orokor horren edukia ere artikulua horretan dago ezarrita.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen (DBEBL) 18. Artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du eta lege horren ezarpen eremuko fitxategiak erregistro horretan inskribatu behar direla ezartzen du.

Horretaz gain, datuen babeseko legediak, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak, hain zuzen ere, ezartzen du Segurtasun Dokumentu baten beharra, fitxategien segurtasun mailen araberako segurtasuna bermatu dadin.

Arrasateko udalak sortuta dituen fitxategiak oso zaharrak direla kontuan izanda, gehienak 1994. urtean sortuak eta 2005ean inskribatuak, udalak berauen berrikuspen orokor bat egin du eta egungo egoera eta legedira egokitzeko beharra ikusi du.

Hori dela eta, Pertsonal batzorde honek Udaltzari proposatzen dio honako erabakia har dezala:

Lehenengoa: Egun Datuak Babesteko Euskal Bulegoan inskribatuta dauden fitxategi guztiak ezabatzea, Erabaki honen II. Eranskin gisa datorren zerrendan zehaztutakoak, alegia.

Bigarrena: Erabaki honen I. Eranskinean jasotako fitxategiak sortzea, bertan jasotzen den deskribapenarekin.



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

Hirugarrena: Onartzea aurkeztutako Segurtasun Dokumentua eta Informazio Sistemen Erabilera Egokiaren Eskuliburua, zeinak bete beharko diren udalaren funtzionamendu orokorrean.

Laugarrena: Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraztea ezarritako prozedura jarraituz fitxategi berriak inskribatu ditzan eta ondoren Datuak Babesteko Espainiako Agentziako Erregistroari jakinarazi diezazkion.

5.- “ARRASATE UDALERRIKO 1 GUNEAN (URIBARRI-LORAMENDI) IBILGAILUEN APARKALEKU ARAUTUA KONTROLATZEKO ZERBITZUA” EMATEKO KONTRATUAREN IRAUPEN EPEA LUZATZEKO PROPOSAMENA. (2013CHOZ0005)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

2013ko urriaren 22an Arrasateko Udalak eta “GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A.” enpresak “ARRASATE UDALERRIKO 1 GUNEAN (URIBARRI-LORAMENDI) IBILGAILUEN APARKALEKU ARAUTUA KONTROLATZEKO ZERBITZUA” emateko kontratua sinatu zuten, lau urteko iraupenarekin, eta ondorengo prezioan:

- 55.438,41 euro, BEZ gabe (67.080,48 €, BEZ barne), lehen urterako.

Kontuan izanik, aurrez egin beharreko lanak medio, zerbitzua 2013ko abenduaren 1ean jarri zela abian, eta lehendabiziko faktura abenduari zegokiona izan zela, kontratuaren iraupena **2013ko abenduaren 1etik 2017ko azaroaren 30** arte izango da.

Aipatu kontratua, 3. klausularen arabera, luzatu ahal izango da, alde biek espreski horrela erabaki ezker, urte bateko beste bi epez. Horretaz gain, kontratuaren prezioa berrikusi daiteke, aurreko urte naturalean KPI-k izandako aldaketaren %60aren arabera.

Kontratuaren bigarren urtetik, berraztertzean aplikatu beharreko formula izango da aurreko urte naturaleko estatuko Kontsumorako Prezioen Indizean izandako aldaketaren % 60koa.

Kontuan izanik Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko urriaren 22an egindako bilkuran aurreko bi urteetako prezioen berrazterketa erabaki zuela, baldintza hauetan:

- 2014ko abenduaren 1etik kontatzen hasita egin beharreko prezioen berrazterketan erreferentzia 2013 urteko estatu mailako KPI hartu behar da. Kasu honetan, INEn arabera, % 0,3, izan zen, eta prezioa berrikusteko KPI-ren %60a (% 0,18) aplikatzea zegokion, eta hauxe izan zen 2014ko abenduaren 1etik 2015eko azaroaren 30era onartutako kontratuaren prezio berria:*

- 55.538,20 €/urtean, BEZ gabe (67.201,22 €, BEZ barne).



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

b) 2015eko martxoaren 16an, Tokiko Gobernu Batzarrak zerbitzuaren gehikuntza bat onartu zuen, TAOren sistema Ferixalekuko aparkalekura zabalduz. Honek hileko prezioaren gehikuntza bat ekarri zuen 2015eko urtarrilaren 1etik, 21,33 €/hilean, BEZ gabe, hau da, 255,96 euro/urtean. Beraz, kontratuaren prezioa honela geratu zen:

$$- 55.538,20 + 255,96 = 55.794,16 \text{ €/urtean, BEZ gabe (67.510,93 €, BEZ barne).}$$

c) 2015eko abenduaren 1etik kontatzen hasita egin beharreko prezioen berrazterketan erreferentzia 2014 urteko estatu mailako KPI hartu behar da. Kasu honetan, INEn arabera, KPI -1,0 % izan zen, eta prezioa berrikusteko haren %60a (-0,60%) aplikatzea zegoen, eta hauxe izan zen 2015eko abenduaren 1etik 2016ko azaroaren 30era kontratuaren prezio berria:

$$- 55.459,40 \text{ €/urtean, BEZ gabe (67.105,87 €, BEZ barne).}$$

d) 2016ko abenduaren 1etik kontatzen hasita egin beharreko prezioen berrazterketarik ez zen egin, 2015 urteko estatu mailako KPI "0" izan zelako.

Kontuan izanik kontratuaren iraupen epea bukatzeaz dagoela, beharrezkoa da berariazko luzapen-akordioa hartzea, bai Udalaren aldetik bai adjudikaziodunaren aldetik ere. Horretaz gain, kontratuaren prezioa berrikustea egokia da, aurreko urte naturalean KPI-k izandako aldaketaren %60aren arabera.

Kontuan izanik luzatzearekin batera 2017eko abenduaren 1etik kontatzen hasita beste berriz ere berrikuspina egin behar dela, oraingo honetan erreferentzia 2016 urteko estatu mailako KPI hartuta. Kasu honetan, INEn arabera, KPI 1,6 % izan zen, eta prezioa berrikusteko haren %60a (0,96%) aplikatzea dagokio, eta hauxe izango litzateke **2017ko abenduaren 1etik 2018ko azaroaren 30era kontratuaren prezio berria (Ferixalekuko aparkalekuaren kudeaketa barne):**

- 55.991,81 €/urtean, BEZ gabe (67.750,09 €, BEZ barne).

Goian azaldutako guztiarengatik, eta Kontratazio Teknikariak egindako txostenaren arabera, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordeak ondorengo akordioa proposatu dio Udal Plenoari:

I.- GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A., enpresarekin 2013/10/22an sinatutako kontratua, "ARRASATE UDALERRIKO 1 GUNEAN (URIBARRI-LORAMENDI) IBILGAILUEN APARKALEKU ARAUTUA KONTROLATZEKO ZERBITZUA", urte batez, 2017/12/01etik 2018/11/30era arte luzatzea, aipatu kontratuan ezarritako baldintzetan.

II.- Epealdi horretarako kontratuaren prezioak, aurreko urteko KPIk izandako igoeraren %60a (% 0,96) aplikatuz, hauxe izango da:

- 55.991,81 €/urtean, BEZ gabe (67.750,09 €, BEZ barne).



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

III.- Adjudikaziodunak, jakinarazpen hau jaso eta 15 egunetako epean, Udalaren aurrean luzapenarekin bere adostasuna azaldu beharko du idatziz. Epe horretan ez badu adostasuna azaltzen kontratuaren luzapena bertan behera geldituko da.

6.- EBAZPENA ERABAKITZEKO PROPOSAMENA, SAN ANDRES AUZOKO UR DEPOSITUAN TELEFONIA MUGIKORREKO ESTAZIOA EZARTZEKO KOKAPEN BERRIAREN EGOKITASUN ADIERAZPENARI DAGOKIONEZ, “VODAFONE ESPAÑA, SA”-K SUSTATUTA. (2016HHHH0094)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

2016ko irailaren 22ko datarekin, Udal Gobernu Batzordeak, “VODAFONE ESPAÑA, SAU” enpresak eskatuta, espediente bat abiarazi zuen San Andres auzoko ur deposituan telefonia mugikorreko estazio baten ezarpenaren kokapen berriaren egokitasun adierazpena egiteko.

Espedientea informazio pean geratu da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, 2016ko urriaren 10ean.

Halaber, erabakia “ORANGE ESPAGNE, SAU”, “TELEFONICA MOVILES ESPAÑA, SAU” eta “XFERA MOVILES, SA”-ri jakinarazi zaie, adierazitako epean beraien iritzia aurkeztu ahal izan dezaten planteatutako kokapenaren egokitasunaren inguruan (etorkizunean egin daitezkeen ezarpenei begira).

Alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko emandako epean, San Andres Auzoan dagoen Iramendi baserriko Juan Jose Otaduy Echeverria jaunak idatzi bat aurkeztu zuen, zeinean, laburki, agerian uzten duen aukeratutako kokapena ez dela egokia, populatuta diren hainbat etxebizitzaren ondo-ondoan dagoelako, eta legezko distantziak zaindu gabe, horien artean egonik alegazio aurkezlearena; dioenez, espazio asko daude udalerriko zoru ez urbanizagarriaren barruan, giza eraikuntza edo asentamendutik urrun, horrelako instalazioak kokatu ahal izateko. Aurkeztutako idatziarekin batera, Laneko Arriskuen Prebentzioko Goi mailako Teknikari eta Ingeniari Agronomo eta eremu elektromagnetikoen neurketako Aditu batek emandako txosten teknikoa gehitzen da, non adierazten den horrelako instalazioek pertsonengan eragiten duen sintomatologia, eta gomendatzen duen instalazioak etxebizitzetatik hurbil ez egitea.

Halaber, San Andres Auzo Alkatearen idatzia ere aurkeztu zen, alegazioekin, zeinean Auzoko Batzarraren iritzia jasotzen diren planteatutako instalazioari dagokionez, eta horiek bat datoz esaten denean telefonia mugikorreko antenek eragin kaltegarriak dituztela osasunerako, eta aipatutako instalaziorako aukeratutako kokapena Auzoko bi baserrietatik hurbil dagoela. Gainera, beraien iritziz, horrelako instalazio bat ez da egokia landa lurrerako, instalatuko den antenak sortzen duen inpaktuagatik, eta eskatzen dute inor bizi ez den ingurune batean instalatzeko.



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

Horrez gain, erregistratutako alegazioen aurkezpenari erantzunez, “VODAFONE ESPAÑA, SAU”-k idatzi bat aurkeztu zuen, zeinean adierazten duten Telefonía Mugikorreko Oinarrizko Estazioaren kokapena gaur egun dagoen lekutik aldatzearen jatorria –oraingoa Fagor Arrasateren industrialdean dago– ez da alegatzailearen borondatea.

Partikularrek formulatutako alegazioak Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioari, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuordetzari igorri zitzaizkien, erakunde horien iritzia jakiteko helburuarekin aipatu alegazioen edukiari buruz, eta auzoko bizilagunek ezarri beharreko instalazioaren ondorio kaltegarri posibleen inguruan duten kezka buruz.

Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak udal errekerimenduari erantzun dio, besteak beste, hau esanez:

- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 34.4 de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, General de Telecomunicaciones, corresponde al Estado la fijación de los límites en los niveles de emisión radioeléctrica tolerable para los distintos servicios. Dichos límites están establecidos en el real decreto 1066/2001, de 28 de septiembre, por el que se aprobó el reglamento que establece las condiciones de protección del dominio público radioeléctrico, restricciones a las emisiones radioeléctricas y medidas de protección de la Orden CTE/23/2002, de 11 de enero, por la que se establecen las condiciones para la presentación de determinados estudios y certificaciones por operadores de servicios de radiocomunicaciones.

- En consecuencia, la competencia en materia de control de emisiones radioeléctricas corresponde al Estado, quien la ejerce a través de la Secretaría de Estado para la Sociedad de la Información y Agencia Digital (SESIAD), aplicando los procedimientos establecidos legalmente para autorizar la puesta en servicio de las distintas estaciones de telefonía móvil en todo el estado, así como a través de las comprobaciones técnicas y medidas a que son sometidas dichas estaciones a lo largo de su vida operativa.

- La SESIAD no concede autorización de puesta en servicio de ninguna estación de telefonía móvil si no cumple los límites, establecidos en el mencionado real decreto para los niveles de emisión. Asimismo, si a lo largo de la vida útil de la estación, se comprobara que sus niveles de emisión incumplen dichos límites, inmediatamente se toman las medidas para impedir el servicio de la estación en tanto no se corrige su incorrecto funcionamiento.

Baina Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioako zuzendariak adierazi du formulatutako alegazioetan jasotako baieztapenek ez dutela ingurumen izaerarik, eta, ondorioz, bere iritzia da organo horri ez dagokiola inolako txostenik egitea.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publiko eta Mendekotasunen Zuzendaritzak, berriz, udal errekerimenduari erantzuteko txostena eman du, eta bertan, labur esanda, ondorioztatzen da ebidentzia mugatua dela, eta ezin dela ondorioztatu telefonía mugikorreko uhinek osasunerako eragin kaltegarria dutenik, betiere 1066/2001 Errege Dekretuak ezarritako mailen azpitik badaude. Hala eta guztiz ere, bere iritziz, telekomunikazioetako azpiegiturak herritarren segurtasun printzipioak kontuan hartuta ezarri behar dira, ahaztu gabe ingurumenaren babesa eta ingurumen integrazioa, eta betiere zerbitzuaren kalitatea mantenduz.

Egindako guztia kontuan hartuta, eta honako hau kontuan hartuta:

1.- Espediente honen xedeko ezarpenetik hurbil bizi diren bizilagunek agerian jarri dutenez, egiazki, udalerrian beste kokapen batzuk daude horrelako instalazioak hartzeko, bizilekuetatik urrun,



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

instalazio horiek aipatu nukleoetatik hurbil daudenean sortu ohi dituzten molestiak eta kalteak saihesteko (ikusten direlako kalteak, motorren eta hozteko gailuen zaratak, ibilgailuak aurrera eta atzera inguruan mantentze lanak egiteko, etab.).

2.- Horrenbestez, egoera horiek kontuan hartuta, egokia da ez onartzea San Andres Auzoko Ur Depositua egokitasun adierazpena ez onartzea Telefonía Mugikorreko Estazioa ezartzeko kokapen gisa, eta espedientearen sustatzaileak beste kokapen batzuk aztertu beharko ditu.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzorde honek proposatzen dio Udalbatzari Telefonía Mugikorreko Estazioa ezartzeko kokapen berria ez dadila izan San Andres Auzoko Ur Depositua, "VODAFONE, SA"-k planteatu zuen bezala, eta kokapen berriak aztertu daitezela aipatu instalazioa kokatzeko.

7.- 2017KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2017-06-30n. (2017RBAR0026)

2017ko aurrekontuaren exekuzio egoerari buruzko informazio bidaltzen du batzordeak 2017-06-30ri buruz, zenbaki laburpen hauen arabera:

A - GASTUAK (Datuak mila eurotan)

A.1 - ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO GASTUAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)(Aukea sartuta)

ZENBATEKOA GUZTIRA	ORDAINKETA GUZTIRA	BAJAK	ORDAINDU BARIK 2017-06- 30N
2.048,88	1.913,12		135,76
	93,37%		6,63%

A.2 - TXERTATUTAKO KREDITUAK (EXEKUZIOAN DAUDEN GASTUAK, 2016KO AURREK. LIKIDAZIOTIK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	BAIMENDUA	ERABILIA (adjudikatua)	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (exekutaturik)	ORDAINDUA	SOBERAKINA
3.624,63	3.594,88	1.629,17	693,22	663,80	29,75
	99,18%	44,95%	19,13%	18,31%	0,82%

A.3 – 2017KO URTEALDI KORRONTEA EDO AURREKONTUA (mila euroan)



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

KAPITULUA	AURREK.	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA (adjudikatua)	AGINDUTAK OA (exekutaturik)	ORDAINDUA	ERABILGARRI
I Pertsonalaren gastuak	10.738,69	5.322,94	5.322,94	5.322,94	5.322,94	5.415,75
	100%	49,57%	49,57%	49,57%	49,57%	50,43%
II Ondas. eta zerb. erost.	10.607,27	7.376,89	6.802,88	4.001,60	3.565,70	3.230,38
	100%	69,55%	64,13%	37,73%	33,62%	30,45%
III Maileguen inters.	20,13	6,94	6,94	6,94	6,94	13,18
	100%	34,48%	34,48%	34,48%	34,48%	65,52%
IV Transferentzia korronteak	4.809,92	2.497,76	2.491,64	2.007,72	1.615,27	2.312,16
	100%	51,93%	51,80%	41,74%	33,58%	48,07%
V Kredito globala	50	2,22				2,22
	100%	4,44%				4,44%
VI Inbertsioak	8.674,08	1.904,71	1.605,19	369,23	329,73	6.769,37
	100%	21,96%	18,51%	4,26%	3,80%	74,04%
VII Kapit. transferentziak	1.049,06	487,61	487,61	287,61	264,95	561,45
	100%	46,48%	46,48%	27,42%	25,26%	53,52%
VIII .Finant. aktib.	180	91,79	97,79	43,61	43,61	88,21
	100%	50,99%	54,33%	24,23%	24,23%	49,01%
IX Mailegu amortz.	311,73	157,62	157,62	157,62	157,62	154,12
	100%	50,56%	50,56%	50,56%	50,56%	49,44%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	36.393,10	17.846,26	16.966,60	12.197,28	11.306,77	18.546,84
	100%	49,04%	46,62%	33,52%	31,07%	50,96%
URTEALDI KORRONTEA + TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	40.176,55	21.599,96	18.754,60	12.923,95	12.004,01	18.576,59
	100%	53,76%	46,68%	32,17%	29,88%	46,24%

A.4 – DATOZEN EKITALDIAK (mila euroan)

URTEA	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA
-------	--------------------	-------------------



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

2018	259,16	28,47
		10,98%
2019	202,57	90
		44,42%
GUZTIRA DATOZEN EKITALDIAK	461,73	118,47
		25,65%

B – DIRU SARRERAK

B.1 ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO SARRERAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	KOBRANTZAK GUZTIRA	BAJAK	KOBRATZEKO DAUDENAK 2017-06-30n
4.769,82	1.713		3.031,54
100%	35,91%		63,56%

B. 3 2017KO URTEALDI KORRONTEA - AURREKONTUA (mila eurotan)

KAPITULUA	AURREK.	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK (likidatutako diru-sarrerak)	KOBRANTZA GARBIAK (% onartutako eskubideei buruz)	KOBRATZEKO DAUDENAK (% onartutako eskubideei buruz)	AURREK. DESBIDERATZ.
I Zuzeneko zergak	7.658,25	5.663,79	5.126,23	537,56	-1.994,46
	100%	73,96%	90,51%	9,49%	-26,04%
II Zeharkako zergak	325	358,89	269,07	89,82	33,89
	100%	110,43%	74,97%	25,03%	10,43%
III Tasak eta prezioak	7.158,50	3.608,65	3.424,02	184,63	-3.549,85
	100%	50,41%	94,88%	5,12%	-49,59%
IV Transferentzia korronteak	15.409,26	7.694,84	7.335,03	359,81	-7.714,42
	100%	49,94%	95,32%	4,65%	-50,06%
V Ondare. sarrerak	138,20	49,64	43,94	5,69	-88,56
	100%	35,92%	88,52%	11,46%	-64,08%



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

VI Inoren. errealak.	220,24	6,34	6,34	0	-213,90
	100%	2,88%	100%	0	-97,12%
VII Kapit. transf.	181,20	100,67	40,64	60,03	-80,53
	100%	55,56%	40,37%	59,63%	-44,44%
VIII Finan. akt. aldak.	174,42	1,80	1,79	0,01	-172,62
	100%	1,03%	99,44%	0,56%	-98,97%
IX Maileguak	398,44				398,44
	100%				100%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	31.663,51	17.484,62	16.247,06	1.237,56	-14.178,88
	100%	55,22%	92,92%	7,08%	-44,78%
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, 2016KO LIKIDAZIOKOA	8.513,05				-8.513,05
URTEALDI KORRONTEA + SOBERAKINA + TXERTATUTAKO ZORDUNKETAK GUZTIRA	40.176,55	17.484,62	16.247,06	1.237,56	-22.691,93
	100%	43,52%	92,92%	7,08%	-56,48%

8.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO 2. HIRUHILEKOAN ONARTU DITUEN 2017KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA.(2017RBAR0025)

2017ko Aurrekontua Betetzeko arauen, 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketen espedienteei buruzko informazioa Udaltzatarrari hiruhilero bidaltzeari dagokionez, Ogasun Batzordeak, kronologiaz ordenaturik, 2017ko 2. hiruhilekoan onartutako espedienteen laburpen honen berri ematen dio Udaltzatarrari:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-04-06koa, onartzen duena 4.000€-an handitzea “1.0200.623.338.00.01 – Karparen erosketa” kontusailaren diru-kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-04-06koa, onartzen duena “1.0812.601.454.00.01-Artabilla baserri bidea”, 35.000€ zenbatekoan handitzea; gastu hori



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

finantzatuko da diru-sarreretako “2.0812.720.000.00.01 – Diputazioko.dirulaguntza- Artabilla baserri bidea obra” kontu-sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-04-06ko, onartzen duena 25.000€-an handitzea “1.0100.226.924.00.99 – Prozesu partehartzaileak” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-04-12koa, onartzen duena 10.000€-an handitzea “1.0500.622.150.00.00 – Udal ondarrerako inbertsioa” kontu-sailaren diru-kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-05-03koa, 2017ko produktibitate planaren 1.ordainketa onartzen duena, eta, horren ondorioz, inplizituki, lehenengo kapituloko kontu sailak 84.418,13€-ko zenbatekoan handitzen direla, gastu hori diru-sarreretako “2.0600.860.000.00.01 – 2015ko aurrekontuz kanpoko Fondoaren traspasoa”, kontu-sailarekin, kreditu gaikuntzaren erregimenean, finantzatu delarik.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-05-03koa, onartzen duena 43.500€-an handitzea “1.0911.227.337.21.04 – Ludoteka eta gatzetxokoen azpikontratutako zerbitzua” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0100.226.929.00.99 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-05-18koa, onartzen duena 7.500€-an handitzea “1.0802.601.171.01.01.2016 – Gorostiza parke estalia” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0802.601.171.00.00 – Haur parkeak” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-05-18koa, onartzen duena 22.000€-an handitzea “1.0800.601.153.11.00.2016 – San Josepeko Berurbanizazioa” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.153.00.00 – Bide publikoen urbanizazioa” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-05-25koa, onartzen duena 1.050€-an handitzea “1.0800.204.338.00.00 – Pantaila alokairua ikuskizunetarako” kontu-sailaren diru-kopurua, “1.0500.622.153.24.02.2016 – Garaia-Takolo zeharbidea proiektua” kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-01koa, onartzen duena 13.740€-an handitzea “1.0802.601.171.01.01.2016 – Gorostiza parke estalia” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0802.601.171.00.00 – Haur parkeak” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-01koa, onartzen duena 6.000€-an handitzea “1.0500.622.150.00.00 – Udal ondarrerako inbertsioa” Karparen erosketa” kontusailaren diru-kopurua, “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-08koa, onartzen duena 8.350€-an handitzea “1.0800.225.153.00.01 – Jabari hidraulikoen tasak” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.153.00.00.2016 – Bide publikoen urbanizazioa” kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-22koa, onartzen duena 45.000€-an handitzea “1.0409.480.231.30.00 – Pobreziaren kontrako plana: larrialdiak” kontu sailaren diru-kopurua, horietatik, 21.383,70€, kreditu transferentzia erregimenean “1.0403.227.231.10.00 – Azpikontratua: etxeko laguntza zerbitzua” kontu-sailatik bideratuta eta, gainontzekoa, 23.616,30€, kreditu gaikuntzaren erregimenean, “2.0409.410.000.00.05 – Pobreziaren kontrako plana –E.J.-ko laguntza” kontusailean gehiagoz jasoko diren sarreraren kontura.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-22koa, onartzen duena 2.000€-an handitzea “1.0401.625.231.90.00 – Iturbide inbertsioak” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0500.601.153.24.02.2016 –Garaia-Takolo zeharbidea proiektua” kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-22koa, langile baten jubilazio aurreratuaren saria dela eta, onartzen duena 23.403,69€-an handitzea “1.0401.431.231.90.00 – Iturbide egoitza defiziterako ekarpena” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.153.00.00.2016 – Bide publikoen urbanizazioa” kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-22koa, onartzen duena 2.000€-an handitzea “1.0800.601.165.00.00 – Argiteriako inbertsioak” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.133.00.00.2016 – Bide publikoetako seinalizazio Inbertsioak” kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2017-06-22koa, onartzen duena 12.000€-an handitzea “1.0500.622.150.00.00 – Udal ondarrerako inbertsioak” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0800.601.153.00.00.2016 – Bide publikoen urbanizazioa” kontu-sailaren soberakinetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

9.- 2017 URTEKO ORDAINSARIAK EGUNERATZEA (2017PLHI0001)

Udal Plenoak, aho batez, Enplegu eta Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udal Plenoak, 2016ko uztailaren 12an egindako bilkuran onartu zuen ‘Arrasateko udalaren zerbitzura ari diren langileen lan-baldintzak bobetzeko gobernu taldeak eta enpresa komiteak sinatutako akordioa’, 2015-2019ko legealdi osorako balioa duena.

Aipatu akordioan, eta 2017 ekitaldiko ordainsarien arloari dagokionez, besteak beste, ‘Ordainsariak Estatuko Aurrekontuen Legeak baimentzen duen tamaina maximoan igotzea’ jasotzen zen.



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

Ikusita 3/2017 Legeak, ekainaren 27koak, Estatuaren 2017ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak 18.2 artikuluan ezartzen duela, *'2017an, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainketek ezingo dutela izan % 1 baino gehikuntza global handiago bat 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden aldean, homogeneotasun terminoetan konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari buruz bai haien antzinasunari buruz'*.

Enplegu eta Pertsonal batzordeak akordio hau hartu dezan proposatzen dio osoko bilkurari:

AKORDIOA:

1.- 2017ko ekitaldirako, udal honen zerbitzura dauden langileen ordainketek izatea % **1eko gehikuntza** bat 2016ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainketei buruz, homogeneotasun terminoetan konparazio aldi bietarako, bai langile kopuruari dagokionez bai langileen antzinasunari dagokionez, hori guztia 2017ko EAOLan jasotako aukeraren arabera.

Ondorioz, hauek izango dira taula aplikagarriak:

2017ko ordainketa taula		
Maila	urtekoa	hilekoa(14)
30	58.747,95	4.196,28
29,5	57.961,16	4.140,08
29	57.173,78	4.083,84
28,5	56.394,39	4.028,17
28	55.614,18	3.972,44
27,5	54.841,65	3.917,26
27	54.068,05	3.862,00
26,5	53.291,20	3.806,51
26	52.513,38	3.750,96
25,5	51.747,00	3.696,21
25	50.979,22	3.641,37
24,5	50.225,99	3.587,57
24	49.470,83	3.533,63
23,5	48.678,53	3.477,04
23	47.885,48	3.420,39
22,5	47.092,34	3.363,74
22	46.298,45	3.307,03
21,5	45.500,70	3.250,05
21	44.702,31	3.193,02
20,5	43.906,03	3.136,15
20	43.109,02	3.079,22
19,5	42.321,87	3.022,99
19	41.533,58	2.966,68
18,5	40.737,99	2.909,86
18	39.941,48	2.852,96
17,5	39.137,85	2.795,56
17	38.333,55	2.738,11
16,5	37.526,79	2.680,49
16	36.719,46	2.622,82



Esp.-kodea: 2017SAPL0008

15,5	35.902,31	2.564,45
15	35.085,01	2.506,07
14,5	34.288,71	2.449,19
14	33.491,27	2.392,23
13,5	32.692,74	2.335,20
13	31.893,06	2.278,08
12,5	31.207,44	2.229,10
12	30.520,53	2.180,04
11,5	29.938,51	2.138,47
11	29.350,10	2.096,44
10,5	28.654,49	2.046,75
10	27.957,56	1.996,97
9,5	27.274,79	1.948,20
9	26.589,88	1.899,28
8,5	25.938,85	1.852,78
8	25.286,60	1.806,19
7,5	24.637,10	1.759,79
7	23.986,15	1.713,30
6,5	23.318,90	1.665,64
6	22.651,66	1.617,98
5,5	21.984,42	1.570,32
5	21.317,16	1.522,65

2.- Neurri honek 2017ko urtarrilaren 1eko atzeraeraginez izango ditu ondorioak.

J.L MERINO (IRABAZI):

Yo aquí en esta tabla me pierdo un poco porque llega hasta el nivel 30 y quisiera saber ¿la señora alcaldesa que nivel tiene? porque creo que porque supero los 58.000 € entonces no sé en qué nivel estamos. No sé porque no se refleje aquí porque es una trabajadora de este ayuntamiento.

Entonces no sé quién me puede contestar.

I.BALZATEGI (KONTUHARTZAILEA):

Que yo sepa la competencia de fijar las retribuciones de los órganos políticos la tiene el pleno. Esto estamos hablando de un convenio laboral donde son las tablas básicas a las que hay que sumarles las cantidades de complemento de antigüedad de dedicación y otros complementos. Yo creo que no tiene nada que ver creo.

J.L MERINO (IRABAZI):

Bueno no sé si tiene que ver o no tiene que ver, pero sí que aquí los cargos públicos liberados o medio liberados si se rigen por esta tabla de Udalhitz porque ahora mismo dentro de poco vamos a tener una propuesta de liberación de otro cargo público y si se rige por esa tabla yo quisiera saber por transparencia sí que nivel es el que corresponde al sueldo de la alcaldesa.
